

LAB sindikatuak interpelazio hau helarazten dizue martxoaren 15ean eta 22an iraganen diren herriko bozen harira.

Euskal Herriko zazpi probintzietan antolatutako sindikatu interprofesional gisa, lan baldintza duinen eta ondasunen banaketaren alde borrokatzen gara. Balio abertzaleak, feministak, internazionalistak, ekologistak eta antirrazistak defendatzen ditugu.

Antolatuta gauden enpresetan eta kolektibitateetan honako aldarrikapenak defendatzen ditugu, besteak beste:

- > Etxebizitzaren alokairuen indexazioa, Ipar Euskal Herriko etxeko diru-sarreraren arabera
- > Lansarien igoera, gure lurraldean duintasunez bizi ahal izateko
- > Eskumen sozialaren eta haren finantzaketaren transferentzia Departamendutik Euskal Hirigune Elkargora
- > Emazteen eta gizonen arteko berdintasunerako ekintza-planak onartu eta martxan jartzeari
- > Enpresen arteko garraio planak plantan ezartzeari
- > Kalitatezko zerbitzu publiko eskuragarriak denontzat

Egunerokoan lantokietan antolatzen gara, tartean kolektibitateetan; hala nola, herriko etxetan. Horregatik, etorkizunean herriko etxe eta elkargo mailako hautetsi potentzial gisa, hau da, enplegatzaile gisa, defendatzen ditugun gaietan zuen engaiamendua eskatzen dizuegu.

LABek Ipar Euskal Herri mailako negoziazio kolektiborako egiturak aldarrikatzen ditu. 2024an eguneratutako *Hemen Erabaki* proposamenan, Ipar Euskal Herriarentzat egiturazko tresnak sortzea eskatzen dugu, langileek baldintza onetan lan egin eta bizi ahal izan daitezen.

Ondoko puntu zehatzei buruz interpelatzeko zaituztegu. Ondoko egituretako bat edo gehiago alde bazuaz eta martxan jartzeko prest, dagokion laukia markatu.

Ni, .....,  
auzapeza hautatua banaiz, baita nire talde municipalak ere, .....,  
herriko etxe eta elkargo mailako eskumeneren bidez lanean aritzeko engaiamendua hartzen dugu, martxan jartzeko:

Euskal Hirigune Elkargoaren mailako Behatoki sozioekonomikoa

Euskal Herriko Kudeaketa Zentroa

Ipar Euskal Herri mailako Herriarteko Lurralde Batzorde Soziala, Funtzio Publikoko Kode Orokorreko L251-7 artikuluan aurreikusitakoa

## IRUZKINA

## IZENPEDURA

Interpelazio hau Ipar Euskal Herriko 158 herrietan herriko bozetan aurkeztu diren zerrenda guztiei bidali zaie. Publikoki aurkeztuko dugu 2026ko otsailaren 23an egindako prentsaurreko batean. Jasotako erantzunak eta gure irakurketa gure sarean eta prentsa bidez zabalduko ditugu hauteskunde lehen itzulian baino lehen, bozka-orientaziorik eman gabe.

Baionan, 2026ko otsailaren 5ean